

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.07.28**

Tolosako Udaletxean, 2015eko uztailaren 28an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 28 de julio de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez bertaratutakoak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Lore Agirre Zipitria

Idazkaria:  
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behneko kontuhartzailea:  
Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gaia zerrenda**

1.- Ondorengo akta hauek onartzea:

2015eko ekainaren 13ko Eratze bilkurakoa.  
2015eko uztailaren 7ko Aparteko Osoko bilkurakoa.

### **Orden del día**

1.- Aprobación de las siguientes actas:

Sesión constitutiva del 13 de junio de 2015.

Sesión extraordinaria del 7 de julio de 2015.

- |   |  |
|---|--|
| 2.-Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:<br><br>29015eko maiatzaren 1etik ekainaren 30era(2015/673-2015/1.080). | 2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:<br><br>Del 1 de mayo al 30 de junio de 2015 (2015/673-2015/1-080). |
| 3.-2014ko Kontu Orokorraren onarpena.   | 3.-Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2014.   |
| 4.- 2014ko aurrekontuaren likidazioaren egonkortasunaren berri ematea.  | 4.- Dar cuenta del informe de estabilidad de la liquidación presupuestaria del 2014.                                       |
| 5.- Galdera erreguak.   | 5.- Ruegos y preguntas.  |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1.- Ondorengo akta hauek onartzea:**

**2015eko ekainaren 13ko Eratze bilkurakoa.**  
**2015eko uztailaren 7ko Aparteko Osoko bilkurakoa.**

**1.- Aprobación de las siguientes actas:**

**Sesión constitutiva del 13 de junio de 2015.**  
**Sesión extraordinaria del 7 de julio de 2015.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** dira.

**2.-Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

**2015eko maiatzaren 1etik ekainaren 30era(2015/673-2015/1.080).**

**2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

**Del 1 de mayo al 30 de junio de 2015 (2015/673-2015/1-080).**

Alkatetzak 2015eko maiatzaren 1etik ekainaren 30era bitartean (2015/673-2015/1.080) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**3.-2014ko Kontu Orokorraren onarpena.**

**3.-Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2014.**

Udalaren 2014ko Kontu orokorra jendaurrean jarri zen, hamabost eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hori horrela, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko ekainaren 12an (110 zenbakian) eta udaletxeko iragarki taulan argitara eman zen eta, epe barruan, ez da inolako erreklamaziorik edo oharpenik aurkeztu.

Hori guztia kontutan izanik, Kontu Batzorde bereziak 2015eko ekainaren 4an emandako diktamenaren arabera, udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Tolosako udalaren 2014ko urteko Kontu orokorra onestea. Kontu orokorra honoko agiri hauek osatzen dute:

Udalaren Kontua.

Iurramendi Egoitzaren Kontua.

Erretengibel, S.A.ren Kontua.

Tolargi, S.L.ren Kontua.

Tolosa Lantzen, S.A.ren Kontua.

Tolosa Gasa, S.A.ren Kontua.

Tolosa Lotzen, S.A.ren Kontua.

Udal Sektore publikoaren Kontu Bateratua.

**BIGARRENA**.- Espedientearen berri Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Foru Aldundiari eta Kontuhartzailletza departamentuari ematea.

**4.- 2014ko aurrekontuaren likidazioaren egonkortasunaren berri ematea.**

**4.- Dar cuenta del informe de estabilidad de la liquidación presupuestaria del 2014.**

Kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna ebaluatzeko egindako txostenaren berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

“Administrazio izaera duten entitateen 2014ko aurrekontuko likidazioaren espedienteak betetzen ditu aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2014rako ezarritako helburuak, baina ez du betetzen gastuaren araua.

Gastuaren araua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan gastu araua bete ahal izateko.

Dena den, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzarrari, kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- a) aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea
- b) urteko zor publikoko helburua betetzea
- c) urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.

Administrazio izaera duten entitateen aurrekontu bateratuaren likidazioan aurrezki garbia positiboa da, hain zuzen 1.966.364,65 eurokoa, eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina ere positiboa da kalkulatzen den bi entitateetan kasuan: Udalaren kasuan 7.389.897,89 euro eta lurreamendi egoitzan 417.755,45 euro.

Bestalde, egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak betetzen dituzte administrazio izaera duten entitateek 2014ko likidazioan:

- superabita 3.546.509,56 eurokoa da, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.
- zor bizia 2013an likidatutako sarrera arrunten %41 da.

Baldintzak betetzen direnez, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

## TXOSTENA

### Gastuaren araua

2014ko Aurrekontuko likidazioaren espedientean, 2013ko eta 2014ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 11,9 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

2013ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	26.134.551,45
2013ko interesak	-243.946,80
SEC doiketak	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik	0,00
Finantzaketa lotua duten gastuak 2013an	-801.106,88
<b>2013ko gastu konputagarria</b>	<b>25.089.497,77</b>
2014ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	30.401.804,75
2014ko interesak	-179.797,28
SEC doiketak	
-inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-659.735,20
Finantzaketa lotua duen gastuak 2014an	-1.486.784,59
<b>2014ko gastu konputagarria</b>	<b>28.075.487,68</b>
<b>Gastu konputagarrien bariazioa</b>	<b>11,90%</b>

### Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena

#### Lehendabiziko baldintza

Administrazio izaera duten entitateek aurrezki garbia positiboa izan dute 2014ko likidazioan (1.966.364,65 euro) eta diruzaintza kalkulatu duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 7.389.897,89 euro, eta lurreamendi egoitzak, 417.755,45 euro).

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2014rako zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan xehatzen dira datuak:

ZOR BIZIA 2014/12/31an	11.074.995
2013ko SARRERA ARRUNTAK (1 - 5) kap.	27.273.122
ZOR BIZIA / SARRERA ARRUNTAK (1 - 5) kap.	<b>40,61%</b>

Kalkulua egiteko, 2014ko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak hartu dira kontutan, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Hau da banaketa:

-Udala	10.268.837,99
-Udala. Baimendua baina erabili gabe	575.000,00
-Erretengibel Bankoa	155.616,79
-Erretengibel Kutxa	75.540,56
	<hr/>
	11.074.995,34

2014rako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea da.

Defizitaren kasuan, lehen ikusi dugun moduan, administrazio izaera duten entitateen 2014ko Aurrekontuaren likidazioaren espedienteak betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2014rako helburua, ondorengo taularen arabera:

SARRERAK (1 - 7) kap.	33.948.314,31
GASTUAK (1-7) kap.	30.401.804,75
<b>ALDEA</b>	<b>3.546.509,56</b>

**Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena**

2013ko eta 2014ko ekitaldien artean gastu konputagarriaren bariazioa % 11,9 izan da, 2014ko Aurrekontuko likidazioaren espedientean.

Baina konparatzen badugu 2013 eta 2104ko gastu ez finantziarioa, ajusterik gabe, igoera honela banatzen da:

<b>Gastuak</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>Aldea (%)</b>
Gastu arruntak (1-4 kap.)	23.952.961,65	24.403.087,40	1,9%
Kapital eragiket ak (6-7 kap.)	2.181.589,80	5.998.717,35	175,0%
	26.134.551,45	30.401.804,75	16,3%

Gastuaren igoera, batez ere, kapital eragiketetan izan da, eta hain zuzen ere, udalaren 6. kapituluak, inbertsioak 1.750.086,83 euro izatetik 2013an 5.653.480,83 euro izatera pasa direlako 2014an.

Gastu hauek ez dira errepikakorrek eta ez dute Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Lehen aipatu den moduan, administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia 1.966.364,65 euro izan da 2014ko aurrekontuaren likidazioan, kontuak bateratu ondoren.

Kontuak bateratu aurretik, entitate bakoitzaren egoera hau da:

	<b>Aurrezki Garbia 2014</b>
Udala	3.866.429,74
Iurreamendi	52.314,96
Erretengibel S.A.	-383.177,37
Tolosa Lotzen S.A.	-1.569.022,68

Udalaren kasuan, aurrezki garbia sarrera arrunten %16 da. Normalean, ratio hau, gutxienez, %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da.

Erretengibel S.A.k eta Tolosa Lotzen S.A.k aurrezki garbia negatiboa dute. Erretengibel-en kasuan Bankoa-ren maileguan bi amortizazio aurreratuak egin direlako, guztira 315.313,00 eurokoak, eta Tolosa Lotzen-en kasuan, Laboral-Kutxaren mailegua (1.305.000 euro) osorik itzuli delako 2014an. Gastu hauek ez dira hurrengo ekitaldietan errepikatuko.

### **ONDORIOAK**

Administrazio izaera duten entitateen 2014ko aurrekontuaren likidazioak gastuaren araua betetzen ez badu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da, bateratze mailan, entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen”.

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

#### **5.- Galdera erreguak.**

#### **5.- Ruegos y preguntas.**

Atal honetan ez da izan ez galderarik ez erregurik.

Besterik gabe, gaueko bederatzietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA